



HARITZ LARRAGETA

ANNA KOPEK

eta izpirituen ahotsa

ILUSTRAZIOAK

Marko | Maëla

erein

ANNA KOPEK

eta izpirituen ahotsa

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2024ko azaroan

Diseinua eta maketazioa: Erein argitaletxea
Azaleko eta barruko ilustrazioak: Marko | Maëla

© Marko | Maëla, ilustrazioena
© Haritz Larrageta, testuarena
© EREIN. Donostia 2024, edizioarena

ISBN: 978-84-9109-959-8
L. G.: D 935-2024

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
e-posta: erein@erein.eus
www.erein.eus



Inprimatzailea: Gertu
Zubillaga industrialdea 9
20560 Oiñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
e-posta: gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

HARITZ LARRAGETA

ANNA KOPEK

eta izpirituen ahotsa

ILUSTRAZIOAK

Marko | Maëla

erein

I

JFK



Beti bezala, eskutik heldu zion Jokinek Uxueri aire-
reratzean. Hodeien azpian utzi zuten Madrilgo ai-
reportua eta Ameriketako Estatu Batuetaranzko no-
rabidea hartu zuten.

—Zortzi ordu eta erdi ditugu New Yorkeko JFK
aireporturaino: jar zaitez eroso, Jokin.

—JFK... Zergatik jarri zioten izen hori?

—Jokinen Fan Kluba delako —erantzun zion arre-
bak burlati.

—Ixo, kaikua...

—Bidaia lasai egiteko modurik ikusten duzue?
—moztu zien amak—. John Fitzgerald Kennedy presi-
dente zenagatik jarri zioten izena.

—Tiroz hil zuen norbaitek 1963an —erantsi zuen
Uxuek.

—Benetan?

—Benetan, Jokin.

—Nork hil zuen?

—Lee Harvey Oswald izeneko gizon batek —erantzun zuen amak.

—Bertsio ofiziala da hori —zehaztu zuen Uxuek.

—Bertsio ofiziala? Tipo horrek hil zuen ala ez?

—Ez dago oso argi —jarraitu zuen Uxuek—: Lee Harvey Oswaldek esan zuen berak ez zuela hil, eta, gainera, handik bi egunera, kartzelara zeramatzatela, beste tipo batek hil zuen.

—Nork?

—Mafiako kide batek. Eta ez dago oso argi zergatik. Batzuek diote honen guztiaren atzean Estatu Batuetako zerbitzu sekretuak zeudela...

—Benetan?

—Teoria bat baino ez da, Jokin —erabaki zuen amak—. Edozein gertakari handiren ondoren sortu ohi dira hamaika teoria zoro.

—Baina hau ez da hain zoroa...

—Ez, ez da. Baina litekeena da inoiz ez jakitea zer gertatu zen.

Amak eta Uxuek konspirazioen inguruan hitz egingen jarraitu zuten, baina Jokin, horrezkero, ez zegoen hain interesatuta. Leihotxotik ozeanoari begira eman

zituen minutu batzuk, eta ozeanoari begira geratu zen lo. Ordubetera, esnatu zenean, bidaiari buruz ari ziren Uxue eta ama hizketan:

—Ordu eta erdi pasatxo dugu aireportuan, hobe han bazkaltzen badugu —esan zuen amak.

—17:30ean irtengo da Miamirako hegaldia, ezta?

New York Miamira joateko eskala zen, bertan baitzen jokatzekoa handik hiru egunera, otsailaren bial, futbol amerikarraren urteko partidarik garrantzitsuena: Super Bowl delakoa.

—Zeintzuk ziren taldeak? —galdetu zuen Jokinek interes handirik gabe.

—Kansas City Chiefs eta San Francisco 49ers —erantzun zion Uxuek.

—Ez dakit zein diren.

—Iguar dio, Jokin. Espektakulu ikaragarria izango da. Ikusiko duzu.

JFK aireportuan lur hartzear, estutu zion Jokinek berriz eskua arrebari eta irribarre egin zuen amak Uxue kexaka entzutean. Hegazkinetik atera ziren eta segurtasun kontrol batekin egin zuten topo. Amaren pasaporteari begira geratu zen polizia luzez. Itxoiteko eskatu eta beste polizia bat deitu zuen.

—Zer gertatzen da? —galdetu zuen Jokinek.

—Ez dakit, maitea...

—Etorri nirekin, mesedez —esan zion etorri berria zen poliziak ingelesez amari.

Gela txikitxo batera eramán zituen hirurak. Uxueri eta Jokini aulki banatan esertzeko eskatu zien eta mahai baten aurrean zen beste batean eserarazi zuen ama.

—Txinan egon zinen duela bost hilabete, ezta?

—Bai...

—Zer harreman duzu Txinako Alderdi Komunistarekin?

—Barkatu? Nik ez dut harremanik Txinako Alderdi Komunistarekin.

—Ziur zaude?

—Erabat ziur.

—Itxaron hemen —esan eta gelatik alde egin zuen poliziak.

—Zer esan du, ama? —galdetu zuen Jokinek—. Txinako Alderdi Komunista?

—Txinan gobernatzen duen alderdia da —hasi zen Uxue azaltzen.

—Eta zer?

—Txinaren eta Estatu Batuen arteko harremanak konplikatua dira.

—Eta zer? Ama ez da txinatarra!

—Lasai, maitea —saiatu zen ama lasaitzen—. Argituko dugu hau guztia. Ez duzue kezkatu beharrik.

Atea zabaldu zen berriz. Poliziarekin batera beste pertsona bat sartu zen: traje iluna zeraman emakume altu bat.


—Hau Ballester agentea da —zuzendu zitzaien Uxueri eta Jokini polizia—. Hotel batera eramango zaituzte zuen amak gauza batzuk azaltzen dizkigun bitartean.

—Baina... —hasi zen ama altxatu gabe protestan.

—Egia kontatzen badiguzu, askoz azkarrago joango da dena.

II

Manhattan



Ballester agenteak aireportuko parkingera eraman eta bere autoan sartzeko eskatu zien Jokini eta Uxueri. Hitz gutxiko emakume serioa iruditu bazitzairen ere, oso adeitsua izan zen haiekin:

—St. Marks Place-ko etxe batera eramango zaituztet; Manhattanen dago.

—Ez al gindoazen hotel batera? —galdetu zion Jokinek.

—Fidatu nirekin —esan zien, irribarretsu.

Irratia piztu zuen. Politikan adituak omen ziren Txinako Hubei izeneko probintzian zabalduko epidemiari buruz hizketan ari zirenak. Baina, New Yorkeko kaleak ikusten ari zirela, anai-arrebek ez zioten irratitari kasu handirik egin. Ordubetez gidatu ostean, Williamsburg zubia zeharkatu eta Manhattanen sartu ziren.

—Auzo ukrainarrera goaz —aurreratu zien Ballesterrek.

St. Marks Place-ra heldu zirenean, irratia itzali eta aurrealdea horixka zuen eraikin baten aurrean aparkatu zuen autoa.

—Heldu gara —esan zien—. Apartamenturaino lagunduko zaituztet: goazen.

Eraikinean sartu eta eskaileretatik igo ziren bigarren solairuraino. Ballesterrek apartamentu bateko atea ireki, eskuaz agur esan eta alde egin zuen. Dudan egon ostean, barrura sartu ziren anai-arreba biak. Han, besaulki banatan ateari bizkarra emanda eserita, emakume bi ziren hizketan, errusieraz.

—Вот что меня беспокоит: я думаю, что конфликт между Россией и Украиной может...

—Moztu zuen esaldia beren atzean pausoak entzundakoan—. Они уже здесь.

—Anna Kopek? —zuzendu zitzaien eskuinekoa, burua anai-arrebengana biratutakoan.

—Anna! —oihukatu eta harengana joan ziren korrika biak.

Anna Sokorova zen, Svet taldekoa; ia bi urte lehenago Moskuko kafetegi bateko terrazan Obdorskeko matrioxka eman ziena.

—Zer moduz zaudete? —galdetu zien ingelesez besarkatzen zuten bitartean.

—Ongi... —erantzuten hasi baina gelditu zen Uxue—. Zer gertatzen da?

—Lasai, zuen amari ez zaio ezer gertatuko. —Irriño bat eskapatu zitzaion—. Baina pixka bat zorabiatuko dugu.

—Zertaz ari zara? —galdetu zuen Jokinek.

—Zuen amaren fitxa pirateatu dugu... —hasi zitzaien azaltzen—. Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko harremanak ez daude beren onenean, eta, zuen amaren fitxan, Txinako Alderdi Komunistaren kide dela jarri dugu. Baina ez kezkatu, argituko da guztia; ez zaio ezer gertatuko —errepikatu zien.

—Zergatik egin duzue hori?

—New Yorke apurtxo bat gera zintezten.

—Zertarako?

—Zatozte. —Besaulkitik altxatu eta, beste emakumeari keinu batez agur esanda, ondoko gelarantz zuzendu zen—. Azalduko dizuet guztia.

Lau aulkik inguratzen zuten mahai borobil handi bat zegoen bigarren gela horren erdian. Errezeletan zehar sartzen zen argi horixkak epeltasun puntu bat ematen zion paper pintatu grisaz jantzitako gelari. Eseri ziren.

—Ezetz asmatu nork egin zuen ama eta Txinako Alderdi Komunista lotzen dituen hackeoa?

—Dashak? —bota zuen Jokinek.

—Nola izango da ba Dasha, Jokin! —erantzun zion arrebak harrituta—. Mei izan da, ezta?

—Bingo! —esan zuen Annak irribarretsu—. Orain, Svet taldeko kidea da Mei. Badakizue zer esan nahi duen horrek —jarraitu zuen serioago—: gure kideetako bat hil dela.

—Zergatik? —galdetu zuen Jokinek.

—Ez al zara oroitzen? 121 kide ditu beti Svet taldeak, eta horietako bat hiltzen denean baino ez da kide berririk sartzen —gogoratu zion arrebak.

—Hala da —berretsi zuen Annak—. Edonola ere, pozik gaude; joan zaigun kidea oso zaharra zen, eta bagenekien eguna helduko zitzaiola laster. Loak eraman zuen: oheratu eta, hurrengo egunean, ez zen esnatu. Maite dut lagunak hain modu lasaian joatea —pentsakor geratu zen une batez, lagunarekin akordatzen zela—. Kontua da Mei aukeratu genuela hutsunea betetzeko. Eta asko pozten gaitu horrek.

Irribarre goxoa eskaini eta eskua eman zion Uxuek Annari, joandako lagunagatik malko bat eskapatu nahian zebilkiola igarrita. Esker onez saiatu zen Anna beste irribarre bat marrazten.

—Orduan —hasi zen Jokin, ezertaz ohartzen ez zela—, zertarako behar gaituzue hemen?

Arrebak ostikadatxo bat eman zion mahai azpian eta barrez lehertu zen Anna.

—Arrazoi duzu, Jokin —erabaki zuen Annak—: oraindik ez dizuet hemen egotearen arrazoia azaldu.

Jokinek arrebari begiratu zion, ostikadagatik kontuak eskatuko balizkio bezala. Uxuek ezetz egiten zion buruaz, anaiarekin desesperatzen hasia.

—Dakizuenez, mundua kontrolatu nahian dabilen enpresaburua, Jeremy Wosz, New Yorken bizi da.

—Bai, badakigu.

—Eta bere enpresa nagusiak, R4nd0m Technologies-ek, Manhattanen du egoitza nagusia —gaineratu zuen Annak.

—Eta zertan dabil orain? —galdetu zuen Uxuek zuzenean.

—Ez dakigu.

—Ez dakizue? —harritu zen Jokin.

—Ez dakigu —errepikatu zuen Annak—. Dakigun gauza bakarra da gaur, 19:00etan, Manhattango metro geltoki batean, norbait bahitzen saiatuko dela.

—Jeremy Woszek norbait bahituko du?

—Bere esanetara dauden pertsona batzuek.

—Nor bahituko dute? —galdetu zuen Uxuek.

—Ez dakigu —erantzun eta hasperen hartzeko tar-
tea hartu zuen Annak—. Jeremy Wosz ahal dugun neu-
rrian zelatatzen ari gara. Meik R4nd0m Technolo-
gies-etik gaizkile bati bidalitako mezua irakurtzea lortu
zuen, eta besterik ez du esaten: gaur, geltoki horretan,
«sorgina» bahituko dutela.

—Sorgina? —galdegin zion Jokinek, euskaraz, bere
buruari.

—Ez dakigu nori buruz ari diren eta, horregatik
hain zuzen ere, aprobetxatu nahi dugu hemen zau-
detela metro geltokian lau begi gehiago izan ditza-
gun.

—Behingoagatik ez dirudi oso arriskutsua izango
denik —esan zion Jokinek arrebari ahapeka.

—Hamar bat lagun izango gara bertan eta elkarren
arteko komunikazioa izango dugu aurikularren bitartez,
Beijingen egin zenuten bezala —jarraitu zuen Annak—.
Lagunduko diguzue?

—Badakizu baietz, Anna —erantzun zion Uxuek.

—Zoragarri —esan zien irribarretsu—. Gauzak ongi
badoaz, gaur bertan argituko da guztia eta konpondu
ahal izango dugu zuen amarena, Miamirako bidea ja-
rrai dezazuen.

—Bi ordu baino gutxiago falta dira zazpietarako
—abisatu zuen Uxuek.

—Bai, lasai, oso gertu dago hemendik. Zerbait jan edo edan nahi duzue? Ez dago gauza askorik baina...

Sandwich bana prestatu zien Annak beste lagunarekin sukaldean; Maria zuen izena eta Annaren gaztaro roko laguna omen zen. Jaten zuten bitartean dei bat jaso zuen Annak.

—Mei da; agurtu nahi duzue?

Bozgorailua jarri eta mahai gainean utzi zuen telefonoa.

—Kaixo, Anna Kopek! —bota zien Meik poz-pezik.

—Kaixo, Mei! Zer moduz zaude? —erantzun zuen Uxuek.

—Ongi, hementxe, ordenagailu batetik bestera saltoka... Barkatu zuen amari egindakoa —esan zien erdi barrezka—, baina laguntza pixka bat behar genuen. Saiatuko gara gaur bertan Miamirako bidean izan zaitezten.

Annak telefonoa bozgorailua kendu eta Meirekin hitz egiten jarraitu zuen. Egingo zutenaren azken detaileak ari ziren fintzen.

—Dena prest —erabaki zuen Annak telefonoa eskegitakoan—. Oinez joango gara, ados?

Erantzuteko tarterik utzi gabe, kaxa bat zabaldu zuen eta aurikular bana eman zien Uxueri eta Jokini.

Anna eta Maria aurretik zihoazen eta bi pauso atzerago Uxue eta Jokin. Annak tarteka atzera begiratzten zuen anai-arrebak hor zirela ziurtatzeko, leku guztietara begira baitzebiltzan biak.

—Bazenekien hemengo indigenek Manhattan 24 dolarren truke saldu omen zietela herbeheretarrei? —galdetu zion Uxuek anaiari.

—Benetan? —harritu zen Jokin—. Nik 35 euro ditut aurreztuta!

—XVII. mendean gertatu omen zen hori. Azken mendeetan apur bat garestitu delakoan nago. Baina alkateari proposatu ahal diozu negozioa —gaineratu zuen irribarretsua.

Semaforo gorri batean gelditu zirenean, Annak keinu xume batez agurtu zituen sei pertsona batu zitzaizkien. Kalearen beste aldean zen tren geltokia. Sartu aurretik, Annak zona bakoitzean nor ibiliko zen zehaztu zuen: Jokinek eta Annak lehenengo solairua kontrolatuko zuten, eta Uxueri eta Mariari bigarrena egokitu zitzaien.

Metro geltokian jende pilo bat zebilen batetik bestera.

—Ez dakit non jarri behar dugun arreta —aitortu zion Jokinek arrebari.

—Ezta nik ere. Baina erne ibili behar dugu, norbait bahituko baitute edozein momentutan.

Gizon bizardun bat geratu zitzaion Jokini begira.

—Uxue... Gizon bat dut begira. Nigana dator.
Uxue, nigana dator.

—Aldendu harengandik. Zoaz Annarengana!
—agindu zion arrebak—. Anna! —jarraitu zuen ingelesez—. Jokinek zure laguntza behar du.

—Eskailereren ondoan nago, Jokin; perfume iragarki handi baten ondoan.

Jokin jendetzaren artean murgildu bazen ere, gizonak gertutik jarraitzen zion. Atzera begiratzen zue-
nean, gizona zuen begira. Haserre zegoela iruditu zitzaion. Bihotz taupadak izugarri bizkortu zitzaizkion Jokini. Eta Anna zegoen lekuraino heldu zenean, gizon bizardunak eskaileretan gora jarraitu zuen.

—Nire atzetik zetorren, ziur naiz —esan zion Jokinek Annari.

—Sinesten dizut, Jokin. Hiri honetan jende arriskutsu asko dago. —Eskua sorbaldatik pasa zion lasaitu nahian—. Jar zaitetz han, zaborrontzi horren ondoan —esan zion tokia erakusleaz seinalatzen zion bitartean—, nik hemendik ikus zaitzaketa eta zuk trenen zain dagoen jendearen aldera begiratu ahalko duzu.

Annak esandako lekuraino joan zen Jokin, artean sustoagatik zurbil. Arrebak ongi zegoen galdetu bazion ere, apenas zen erantzuteko gai:

—Bai. Ongi.

Eta, bat-batean, Anna hasi zitzaien urduri hizketan:

—Ikusi ditut! Neska baten atzetik doaz! Hiru dira. Neska eskapatzen ari zaie. —Arnasestuka entzuten zitzaien Annari—. Jende gehiegi dago hemen, ezin ditut jarraitu. Beherantz doaz. Erne Uxue eta Maria!

Aurrean zuen trenak alde egin zuenean ikusi zuen Uxuek neskatoa nasaren beste aldean korrika, jendearekin estropezuka, baina, nolabait, bahitu nahi zutenak atzean uzten hasita. Eta, une batean, Uxue zegoen alde-rantz begiratu eta izoztuta bezala geratu zen hari begira; ezagutuko balu bezala, bere bizitzan izugarrizko garrantzia zuen norbaitekin ezustean topo egin izan balu bezala. Eta, pentsatu gabe, eta tren bat heltzear bazen ere, salto bitan trenbidea zeharkatu eta Uxuerengana joan zen.

Geltokian zegoen jende guztia bezala, segika zituen hiru pertsonak harritura geratu ziren neskak egindakoa ikustean. Parez pare zen Uxuerekin, begietara begiratzeko ziola, barruan zerbaiten bila. Eta, orduantxe, segurtasuneko langile bi abiatu zitzaizkien arrapaladan. Uxueri eskutik heldu eta eskaileretarantz hasi ziren neska eta, ezinbestean, Uxue korrika.

—Zer gertatzen ari da? —galdetu zuen Annak.

—Ez dakit —erantzun zuen Uxuek arnasestuka, kasik metro geltokitik kanpo zirela.

hattan
1. Street



A U R K I B I D E A

I	JFK	5
II	Manhattan	11
III	Olivia	23
IV	Metinuwak	27
V	Ninjak	33
VI	Sandwichak	41
VII	ShoeingGesse.travel	47
VIII	Smashing Clouds	53
IX	Miami	61
X	Balkoian	71
XI	Xake pieza	81
XII	Cayo Hueso	93
XIII	Xake partida	99
XIV	Piezak jasotzen	111

